



## LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

### HILERRIKO ALTXORRA. Saioa Manso Pérez.

Behin batean, herri txiki batean, hiru lagun bizi ziren: Leo, Rebeca eta Asier. Beti ibiltzen ziren misterioak bilatzen. Leo potoloa eta gozozalea zen: ordu guztietan bizpahiru gozoki jaten zituen, ogi-barra tamainako bokata egiten zuen... Rebeca guapa, ausarta eta trebea zen. Mendi altuenak eskalatzen zituen eta ez zuen beldurrik. Eta azkenik, Asier, adimentsu eta azkarra zen. Mate egiten ibiltzen zen beti.

Egun batean, etxean aspertuta zeudela Asierri ideia bat bururatu zitzaion eta esan zuen:

- Hilerrira joaten bagara, zerbait ikusiko dugu, ezta?

Bere gauzak hartu zituzten eta Rebecak esan zuen:

- Bueno, Leok linterna eramango du, Asierrek mapa eta nik motxila.

Hiruak hilerrira abiatu ziren. Halako batean, Leok mamu bat ikusi zuen. Oihukatzen hasi zen "Lagundu!!!". Bost minutu pasa ondoren, mamua beste leku batean agertu zen eta gero beste leku batean... Leok linterna atera zuen eta pizten zuenean mamua desagertzen zen baina gero berriro agertzen zen. Halako batean gauza disdiratsu bat ikusi zuten. Rebeca gauza horren bila joan zen. Altxor kutxa polit bat zen eta barruan urre zati bat zegoen.



Azkenean hilerriko mamua lapur bat zela konturatu ziren. Lapurra urrearen bila joana zen hilerrira. Hiru lagunak poliziaren bila joan ziren. Poliziak lapurra kartzelara eraman zuen eta urrea museo batera.

Bi oilo eta bost txito ipuina bukatu da eta kitto.